BOULDERRA EUSKAL HERRIAN

Boulder edo bloke egitea azken urteetan eskaladaren munduan indar asko hartu duen modalitateetariko bat da. Baina zehazki, zer da boulder egitea eta non egin daiteke?

Boulder egitea (ingeleseko "boulder" hitzetik eratorria) haitz edo horma txikietan praktikatzen den eskalada modalitatea da, orokorrean 2-3 metrotik hasi eta 8-10 metrokoetara gehienez. Orokorrean, haitzezko blokeak igoz edo alboetara eskalatuz egiten da, eta gainerako modalitateetan ohikoak diren hainbat babes erabili gabe (soka, arnesa, fijazioak, etab.). Gehienetan, segurtasun neurri moduan koltxoneta eramangarriak erabiltzen dira, *crashpad* deiturikoak, eta honetaz gain eskalada kideen laguntzaz baliatu ohi da erorketen arriskua saihesteko. Helburua muturreko zailtasunean jardutea da, eta ondorioz, haitzak eskaintzen dituen ibilbide labur hauek "arazotzat" proposatu ohi dira, ebazteko beharrezkoak diren baliabide tekniko eta fisikoak lantzeko asmoz.

Eskalada mota honek hedapen handia izan du azken urteetan, eta honek garapena erantsi die bai eskalatzeko moduari, bai eta eskalatzaileek egun lortzen duten kirol mailari ere. Hedapen hau nabarmena izan da bai ingurune naturalean zein rokodromoetan. Baliteke honetarako hainbat arrazoi egotea, hala nola praktikatzeko moduaren azkartasun eta dinamismoa, bakarrik praktikatzeko aukera, eskarmentu handiaren beharrik eza, erraz irits daitezkeen lekuetan jardun ahal izatea, etab. Honen harira, aipatu beharra dago Tokyon ospatuko diren Olinpiar Jokoetan eskalada kirol olinpiko moduan barneratuko dela, eta bertan eskalatzaileek boulder modalitatean lehiatu beharko dutela beste batzuen artean.

TESTU ETA ARGAZKIAK

Ioritz Gonzalez Lertxundi
(Azkoitia, 1980)

Biologian lizentziatua eta irakaslea. Kirol eskalada zale amorratua, 25 urte baino gehiagoko esperientziarekin. Eskaladaren iguruan ikerketan aritu izan da. Pyrenaicako erredakzioko kidea da.

> Boulder edo bloke egitea azken urteetan eskaladaren munduan indar asko hartu duen modalitateetariko bat da eta Euskal Herrian ere hainbat gune garatu dira

Iban Garayar, Haizea, 7c. Jaizkibel · ARGAZKIA: IBAN GARAYAR

Itzi Zabala - Solaris 8a+-Baltzola · ARGAZKIA: FLI CLIMBER

Azken urteetan boulderra praktikatzen den guneen inguruan eztabaida sortzen ari da, jarduera mota honek izan dezakeen inpaktuaren eraginagatik. Modalitate honen hedapenak arazoak sor ditzake, bereziki eskalatzaileek ez badituzte gune hauek babesten, bertako arauak errespetatuz eta egon daitezkeen erregulazioak jarraituz. Ondorioz, oso garrantzitsua da jarduera hauen mantenu eta garapenerako ingurune naturala errespetatu eta babestea.

Historiari dagokionez, eskalada mota honen hastapenak eskalada klasikotik eratorri ziren, zenbait haitzen igoerak jarduera gehigarri gisa egiten hasi zirenean. Hasiera batean, eskalatzaileek entrenamendu gisa jarduten zuten, mendiak igotzeko behar zituzten gaitasunak garatu eta ondoren pareta handietan erabiltzeko. Urteak aurrera joan ahala, leku hauek berariazko eskalada mota garatu dute, bertako bloke eta arazoak eskalatzaile askoren helburu propio eta kirol jardun bilakatuz.

Badirudi boulderraren hastapenak 1800 inguruan izan zirela. Nahiz eta inon erregistraturik egon ez, lehen aipamenak Suitzan kokatzen dira, alpinismoak indar handia hartu zuen garaian. Bertako mendi gidariek eguraldi txarra zegoenean bezeroak boulder egitera eramaten zituzten, mendi handietara joan ezinik geratzen ziren egunetan, eguraldi onaren zain zeuden bitartean eskaladan trebatzeko asmoz. Ez dago argi noiz hasi ziren jarduera hauek egiten, baina garai hartan boulderra ez zen eskaladako diziplinatzat hartzen.

Urte batzuk beranduago, 1870 aldean, badirudi Paris inguruko alpinista asko basoan zehar oinezko zeharkaldiak egitera joaten zirela Fontainebleaura (Frantzia). Baso hauetan, hain bereziak bezain ikusgarriak diren hareharrizko hainbat blokerekin egin ohi zuten topo, eta eskaladan trebatzeko aukera ezin hobea eskaintzen zietela jabetzen joan ziren. Jada 1874 urtean, Frantziako Mendi Elkartea sortu zenean, bertako hainbat kide sarri joan ohi ziren baso hauetara, espresuki eskalada entrenatzeko helburuarekin.

Euskal Herrian eskalada mota hau praktikatzeko hainbat gune garatu dira aurrerakoiak izan ziren hainbat eskalatzaileei esker

Gure lurraldeari dagokionez, jakina da mendiko jarduerekiko lotura handia dugula, eta boulderrraren garapena ez da lotura honetatik at geratu. Euskal Herrian, eskalada mota honek ere bere eboluzioa izan du hainbat lekutan. Hau ez da zoriz gertatu den zerbait, izan ere, gune hauen aurkikuntza eta garapena bere garaian aurrerakoiak izan diren eskalatzaileei zor diegu, haitzek eskaintzen dituzten aukerak baliatzen jakin izan baitute. Berauei esker, eskalatzaileok etxean bertan diziplina honetan jarduteko aukera dugu, eskaladaren aukerak zabalduz. Lerro hauen bitartez, aipamen bat besterik ez bada ere, keinutxoa egitea gustatuko litzaidake, boulder gune hauetan egin izan duten borondatezko lana eskertuz.

Ondorengo lerroetan, gure lurraldean eskalada modalitate hau praktikatzeko erreferentziazkoak diren guneen zerrenda bat egin da, eskalatzaileoi eskaintzen dizkiguten aukeretan oinarrituz batik bat. Segur aski ez dira Euskal Herrian aurki ditzakegun gune guztiak aipatu zerrendan, baina ziurtasunez esan dezakedana da ageri diren guztiak erreferentziazkoak direla modu batera edo bestera.

Maite Artetxe, Flishman, 7b. Getaria · ARGAZKIA: JON SEGUROLA

LARRAONA

Eskalada gune hau Ameskoako bailaran kokatua dago, Nafarroa eta Arabaren arteko mugan, Urbasa mendilerro ikusgarriaren hegoaldeko mugan. Lekua, zoragarria bezain miretsia, biologikoki zein geologikoki aberatsa da. Esaterako, bertako basoetan murgiltzean ehunka urte dituzten pagadiz inguratuak sentitzeaz gain, bertako biztanleen bisita ere jaso genezake zorte apur batekin. Bertan dute bizilekua esaterako hainbat anfibio espeziek, uhandre palmatuak edo baso-igel gorriak beste batzuen artean. Hegazti eta ugaztun espezie anitz ere aurki ditzakegu, okilak, birigarroak, aztoreak, katagorriak, azkonarrak, lepazuriak edota basakatuak esaterako.

Geologikoki ere oso gune interesgarria dugu Ameskoako bailara. Era Tertziarioan zeharreko mugimendu orogenikoen ondorioz sortu zen, Andiako kareharrizko mendigunea azaleratzearen ondorioz. Urbasa mendilerroa gainera, bere izenaren jabe da, uraren higadurak marrazturiko karst eta paisaia miragarriak eskaintzen baitizkigu. Paraje liluragarri honen erdian, boulderra praktikatzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizkiguten hainbat haitz aurki ditzakegu. Badira jada hogei urte baino gehiago hainbat eskalatzaile bertara gerturatzen hasi zirenetik, lekuaren edertasunak erakarririk.

Larraonako eskalada gunea Urbasako mendilerroaren mugan dago kokatua eta bertako eskaladek maila erdi eta altuko arazoak eskaintzen dizkigute gehienbat

Kareharrizko haitz hauek dauden basoetara iristeko, guneari izena ematen dion herrigunetik abiatu behar da. Bertako eskalada mota fisikoa dela esan daiteke, indar handia eskatzen duelarik. Kasu gehienetan, atzera egiten duten sabaiak dituzten haitzak izan ohi dira, helduleku txiki eta zuloekin. Zailtasunari dagokionez, maila erdi edo altuko arazoak daudela esan daiteke, zazpigarren eta zortzigarren mailako arazoak direlarik hein handi batean.

Larraonan eskalatzeko garairik onenak udaberria eta udazkena izan ohi dira, neguan eta udaran baldintza eskasagoekin ere eskalatu daitekeen arren. Inguruan boulder egiteko guneaz gain, kirol eskalada praktikatzeko hormak ere aurki ditzakegu, eta guztira boulder arazoak eta kirol eskaladako bideak kontuan hartuz, bailaran 1500 bat arazo aurki ditzakegu, eskaintza izugarria beraz.

Parke Naturala izaki, ingurune preziatu honetan ezinbestekoa da arau eta debekuak errespetatzea, guztia joan aurretik zegoen bezala utziz

Azken urteetan, udaletxearen eta Nafarroako Gobernuaren laguntzaz, hainbat aparkaleku eta informazio gune prestatu dira bertaratzen diren eskalatzaileei erraztasunak emateko asmoz. Ezin utzi aipatu gabe oso garrantzitsua dela bertaratzen garenean inguruak dituen ezaugarriez jabetzea. Parke Naturala izateaz gaindi, eskalada gune batzuetara iristeko jabego pribatuetatik egin behar baita, aparkaleku mugatuak dituztenak gainera. Ondorioz, ezinbestekoa da bertako arauak eta debekuak errespetatzea, zaborrik ez uztea, hesiak zeuden bezala itxita uztea eta prestaturiko lekuetan aparkatzea, bertako seinaleak errespetatuz.



Iker Arroitajauregi -Trabe de Baltzola 8c-1996 · ARGAZKIA: IÑAKI MARCO

JAIZKIBEL

Gipuzkoako kostan, Hondarribia eta Lezo herrien artean kokaturik, Jaizkibel mendiak Euskal Herriko kostako paisaia eta paraje ederrenetariko bat eskaintzen digu, milaka urteetan itsasoak utzitako gutizia eta aztarnen lekuko. Olatuen laguntzaz marrazturiko hareharrizko harkaitz bihurrituek bisitarien arreta erakartzen dute. Esaterako, Labetxu inguruko geoformek paisaiari ematen dioten koloreek eta "*paramoudra*" izeneko harri borobilduek txundituko gaituzte bertara gerturatzen garenean. Paisaia eder eta aberats horren babesean, ordea, dena ez da harria eta geologia. *Armeria euscadiensis* landare endemikoak arrosa kolorez jantziko ditu maiatzean itsaslabarrak; eta zeruko mugatik belatz handiek eta saizuriek zelatatuko gaituzte, arrotz sentiaraziz.

Jaizkibelgo gunea eskalatzaileentzat Euskal Herrian erreferentzia bihurtu da, bertako eskalatzaileek sorturiko proposamenen kopuru eta kalitateagatik

Egun, mendizale, naturazale eta eskalatzaileek betetzen dute duela gutxi arte Jaizkibelen ibiltzen ziren artzainen lekua. Horren isla dira azken urteotan inguruko eskalatzaileek proposaturiko hainbat boulder eta sektore. Eta ezbairik gabe, pasioz eta grinaz egiten diharduten lana eskertu beharrekoa da, sorturiko proposamenen kopuru eta kalitateagatik. Badira jada 25-30 urte inguruetako eskalatzaileak bertara entrenamendu moduan gerturatzen hasi zirenetik, eta esan daiteke boulder gune moduan orain dela 20 bat urte hasi zela finkatzen. Eremu hau eskalatzeko guztiz gomendagarria da, jarduera hauek gogoko dituzten eskalatzaileentzat Euskal Herrian erreferentzia bihurtu delarik.

Oro har, hareharrizko arazoetan izan ohi den moduan, indarraz gain teknika ere eskatzen duen eskalada mota da

Jaizkibelgo boulder guneak hiru eremu nagusi ditu: Mitxintxola-Origenes gunea, Gorosti-Cerillas-Gaztelutarte gunea, eta azkenik kostako sektore sakabanatuak. Blokeen ezaugarri teknikoei dagokienez, esan daiteke denetik aurki daitekeela, plaka teknikoetatik hasi eta atzera egiten duten sabai fisikoetara. Oro har, indarraz gain, teknika eskatzen duen eskalada mota da, hareharrizko arazoetan izan ohi den moduan. Hala ere, guztiak hareharrizkoak izan arren, sektoreen arabera haitzaren ezaugarriak ezberdinak dira, itsasotik hurbil dauden sektoreetan haitza hauskorragoa izanik. Arazo kopurua altua da, Gorosti, Cerillas eta Gaztelutarte sektoreen artean bakarrik 250 arazotik gora daude. Itsasotik hurbilago dauden sektoreetan zaila da jakitea, banatuak daudelako, baina beste 100 bat egon daitezke. Jaizkibelen boulderra urte guztian zehar praktikatu badaiteke ere, urtaro egokienak udaberria eta udazkena dira. Gune honetako eskaladari buruzko informazio gehiago nahi izanez gero (sektoreak, krokisak, etab.), eskuragarri dago sare sozialetan (,) edo hurrengo estekan:

Boulder en Jaizkibel: **http://blokejaizkibel.blogspot.com**

Iñaki Marco eta Joseba Saiz-Alkantarilla 7a+ -Larraona 2004





GETARIA

Zumaia eta Getariaren artean dagoen kostako bidea ezaguna egingo zaigu seguruenik. Bertan arratsaldeko azken orduetan errepide ertzean geraturik, bisitari bat baino gehiago egon ohi



Jose Luis Urkizu "Beltza". Tetxoa, 7b+. Getaria · ARGAZKIA XABIER PRIETO

da eguzki izpiek itsasoan sorturiko kolore eta paisaia ahaztezinei edo surflariei so. Lurra eta itsasoaren arteko norgehiagoka etengabearen ondorioz sorturiko bitxikeria geologikoak izango ditugu ikusgai, Getariako arratoi ezaguna esaterako, edo hain bereizgarriak diren itsasertzeko hareharrizko blokeak. Inguruetako eskalatzaileek bertan pasa ohi dituzte arratsalde ugari, eta hainbat bloke eta boulder arazo proposatuko dizkigute gerturatuz gero.

Gune honek txoko eta eskalada une ezin hobeak eskaini ohi ditu, bai lekuaren edertasunagatik, bai eta hareharriaren kalitateagatik ere

Gune honek eskaintzen dituen eskalada bloke kopurua ez da hain oparoa, baina bertaratu diren eskalatzaileek ez dute ezbaian jarriko hareharrizko boulderren kalitatea seguruenik. Paraje honetan eskalatzeak momentu ahaztezinak eskainiko dizkigu, itsasoaren olatuen soinu eta gertutasunaz lagundurik. Gainera, urteko edozein sasoitan eskalatzeko aukera izango dugu, beti ere klima eta itsasoaren egoera kontuan hartuz (olatuek gogor jotzen dutenean itsasaldeko blokeak busti egin daitezke).

Aipatu beharra dago itsas ondoan aurkitzen den sektoreaz gain, errepidearen beste aldean, mendi alderantz beste sektore bat dagoela. Honen ezaugarriak zertxobait ezberdinak dira, sektore hau ez baitago itsasotik hain gertu, basoan murgildurik baizik. Hemengo boulderretan, txakolin landaketetatik metro gutxietara, leku baketsu bezain freskoaz gozatu ahal izango dugu urteko sasoirik beroenetan.

Gune hau bisita bat baino gehiago merezi duen horietakoa da, urtean zehar hainbat eskalada egunez gozatu baitaiteke, eta txoko eta une ezin hobeak bainutxo batekin amaitzeko aukera eskainiko dizkigu.

BALTZOLA

Kobazulo honetara sartu orduko, misterioz josiriko inguruneanbarneratzearen sentsazioak inguratuko gaitu, bere sakontasuneko argi-ilunen arteko lehia eta estalaktiten tanta soinu etengabeak zirrara berezia sortuz. Euskal mitologiaren kondairen gotorleku, hainbat ibiltari eta naturazaleen bisita jasotzeaz gain, eskalatzaile eta espeleologo askoren topagune tradizional eta erreferentziazko bilakatu da azken urteetan.

Dimako herritik gertu dagoen kobazulo miresgarri hau, Baltzola sistema edo Indusiko karsta deritzonean dago kokatua. Sistema hau konplexua da; hainbat galeria aktibo eta fosildu ditu, eta bertan hainbat haitzulo-aho daude. Kobazulo hauetako batzuk natura-intereseko gune izateaz gain, Kultura Ondasun deklaratuak izan ziren, interes arkeologikoko aztarnategi bezala katalogatuak baitaude (248/2017 dekretua).

Baltzola, Kulturaren Ondasun aitortua, interes arkeologikoko aztarnategi bezala katalogatua dago. Honetaz gain interes biologiko berezia du, hainbat saguzarren bizitokia baita

Ander Mendieta, La campa, 7c+/8a. Larraona · ARGAZKIA AINHOA ULLIBARRIARANA



Arestian aipatu bezala, interes biologiko berezia duen gunea da, hainbat animali hegalarien bizileku izan baita urteetan zehar, saguzar espezie batzuena bereziki, baina zoritxarrez 1980ko hamarkadako azken urteetatik aurrera Baltzolako saguzarren presentzia asko murriztu zen. Egun, badirudi saguzarren populazioa gorantz egiten ari dela, hiru saguzar espezie behatu baitira azken urteetan (ferra-saguzar handia, ferra-saguzar txikia eta koba-saguzarra). Honen arrazoietako bat Dimako Udalaren ekimenez eta Eusko Jaurlaritza eta Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntzaz, 2013 urtean Baltzolako barnealdeko zenbait barren bideen itxiera izan da (burdinazko hesien bidez). Ekimen honek helburu anizkoitza izan du: batetik, goiko barren bideetako ondare arkeologikoa babestea; bestetik, barren bide horiek azken hamarkadetan jasandako gehiegizko gizakiaren inpaktua ekiditea; eta azkenik, bere garaian izandako saguzar-kolonien berreskurapena. Ondorioz, esan beharrik ez dago ezinbestekoa dela itxitako barren bideetan ez sartzea eta kobaren sarrera nagusian gehiegizko inpakturik ez sortzea (sua, zaborra, zarata, etab.).

Baltzolako eskalada proposamenak sabai batean daude, ondorioz boulder mota oso fisikoa da eta teknika berezia eskatzen du

Inguru karstikoan eraturiko haitzuloa denez, kareharria da bertako haitz mota, eta bertan proposaturiko arazoak sabai batean daude. Ondorioz, eskalada mota oso fisikoa da, baina honetaz gain teknika berezia eskatzen du. Arazoek orokorrean helduleku txikiak dituzte eta gehienak zeharkaldiak dira, sabaian zehar metro batzuk eskalatu eta helduleku jakin batean amaituz. Kopuruari dagokionez ez daude asko, hamar bat edo, eta pare bat zeharkaldi luzek zatikatzeko aukera eskaintzen dute, honela aukerak biderkatuz.

Baltzolan boulderra praktikatzen orain dela hogeita bost bat urte hasi ziren, eskalatzaile batzuk goiko aldean dagoen sabaiak zeharkaldiak egiteko aukerak eskaintzen zituela ohartu zirenean. Gune honetan urte osoan eskalatu daiteke, ez baita bustitzen, baina eskalatzeko garai onena udaberria edo udazkena izango dira ziur aski.

MAÑARIA

Boulder gune hau azken urteetan garatu da gehienbat, eta Urkiolako parke naturalean dago kokatua, Mañariako herritik oso hurbil. Jakina da Urkiolako parke naturala hainbat mendizale, naturazale eta eskalatzaileren txoko kuttuna dela, Euskal Herriko mendizaletasunaren historian zeresan eta aipamen kopuru ugariak dituena, eta bere historia eta edertasunaz gain, euskal mitologiaren gune ezagunenetarikoa dela.

Biologikoki ere dibertsitate handikoa, Euskal Herrian parke erreferenteetako bat. Esaterako, bertako basoetan aipagarria da flora aniztasuna, ia 700 espeziek osaturikoa. Hauen artean daude gure lurraldeko basoetako berezko zuhaitzak, pagadi, artadi, harizti, urkidi eta ameztiak adibidez. Urkiolan dagoen ornodun fauna aberastasuna ere azpimarragarria da, eta espezie batzuk arriskuan egon arren zorte apur batekin ikus

Beñat Mendiburu, Ni txozna knee bar, 7a+. Jaizkibel · ARGAZKIA LANDER LARRAÑAGA

daitezke. Hauen artean hainbat anfibio (baso-igel iberiarra edo uhandre alpetarra adibidez), narrasti (sugegorri edo suge leuna), hegazti (sai zuria, sai arrea, belatz handia, arrano beltza edo aztorea) eta hainbat ugaztun (azeriak, orkatzak edo basurdeak) besteak beste.

Urkiolako parke naturalean eskaladaz, boulderraz, xenda ikusgarriez edota mendiko beste hainbat jarduerez gozatzeko aukera dago, bertako flora eta fauna aberatsa behatzeaz gain

Paraje miragarri honetan gainera, bere kareharrizko mendi malkartsuek arreta berezia erakarri ohi dute. Eskalatzaileentzako kareharrizko paradisua. Ez da harritzekoa beraz, topaleku erreferentziazko izatea. Atxarte eta Mugarrako eskaladaz, Mañariako boulderrez, bertako xenda eta toki ikusgarriez edota mendiko beste hainbat jarduerez gozatzeko aukera dago. Denbora kontua izan da beraz inguruko eskalatzaile batzuk bertako haitzetan boulderra praktikatzen hastea. Lehenengo arazoak 90eko hamarkadan proposatu zituzten, eta parkean zehar hainbat gunetan jardun izan dira arazoak proposatzen, baina gune garrantzitsuena parke naturalaren iparraldean dago kokatua, Mañariako herritik gertu dagoen basoaren itzalpean. Bertako haitz mota kareharria izaki, lehenengo saiakeretan blokeetako helduleku txikietara moldatzea eskatzen du, eta eskalada amaitu ondoren atzaparrek ondo berotuta bukatu ohi dute. Beraz, esan dezakegu eskalada mota fisikoa dela orokorrean. Arazo kopuruari dagokionez, 120 bat arazo daude, eta eguraldiaren baimenarekin, urte guztian zehar eskalatu ohi da bertan, kontuan izanik basoren itzalpean ibiliko garela.

Eskerrak;

Asier Angulo, Beñat Mendiburu, Zaloa Las Hayas, Mendieta anaiak, Xabier Prieto, Iker Arroitajauregi, Iñaki Marco, Jon Segurola, Ander Espin eta Joxerra Aiartza.

BIBLIOGRAFIA:

https://www.escalando.org/2015/06/la-historia-del-bulder-1era-parte/

http://www.larraona.es/portal/seccion.aspx?N=239

http://larraona-navarra.blogspot.com/2009/01/3-larraona-geologa.html

https://www.euskadi.eus/app/ondarea/patrimonio-arqueologico/cuevas-de-baltzola-y-axlor/dima/fichaconsulta/101033

https://www.euskadi.eus/eli/es-pv/d/2017/11/14/248/dof/eus/html/web01-a2publi/eu/

http://www.urkiola.net/Euskera/Vegetacion/introduccion.php